



TXIMU BATEN GOGOETA



Ez gaude
konforme!



Doinua:
Uso xuria errazu A
Berezia



Iturria:
Argia astekaria

Miren
Amuriza
Plaza

Animaliak ere ez daude oso pozik gizakiokin...
Hara hemen zoologikoan, kaiolan, bizi den tximu baten gogoeta.

Tximua naiz, **mendikoa**,
ia kaiolan **ittoa**,
agoantatu dut **nahikoa!**
Beraz, kantatu nahi dut barrutik
bizi ta **ikusirikoa**,
ez baita askoz txikiagoa
kanpoko **zoologikoa**. (bis)

Betaurrekoak, **bisera**,
mapa, motxila, **kamera...**
Zer espero **duzue ba?**
Nahiz gizakiok tximua ikusi
eta aho-zabal **gera**,
gure arteko diferentzia
hainbestekoa **ote da?** (bis)

Bakoitza bere **kulturan**,
eta dagokion **gudan**,
kontraesanekin **mugan**,
hor zabiltzate askatasuna
zeuontzako lortu **guran**,
baina niri inork ez dit galdetu
kaiolan bizi nahi **dudan**. (bis)

Askok **barroteetatik**
eskua sartu izan **dit**,
zer gura duten **badakit...**
Kosk egin eta zera galdetu
nahi izan dut **kumetatik**:
"Zuk laztanduko al zenuke inor
kakahuete **bategatik ?**" (bis)

Kobak margotu **aurrena**,
gero asfaltoz bete **dena**,
han fabrikak, hemen **trena...**
Gaur egun hobe estimatuko
bazenute **ingurumena**,
harrotasunez zeuen burua
maite duzuen **laurdena**. (bis)

Pertsona tximutik **dator**,
baina zuontzat zorrak **zor**,
kaiolan gara **emankor**.
Historiaren pendulu handiak
aldaketa bat digu **zor**,
nork daki noizbait egongo ez garen
zuek hemen eta gu **hor**. (bis)